

Normaltasuna zen arazoa



FERMIN ERBITI
KAZETARIA

Lasterketaren bat egin duen edonork badaki: ez dago azkarregi hastea baino akats larriagorik. Hanka sartzea egiten duen lasterkariak larrutik ordainduko du. Helmugaraino heltzekotan, nekez ahantziko du sufrikarioa. Hurrengorik bada, lasai, ongi neurtuko baititu indarrak, gogoak eskatzen duen baino lasaiago abiatuta. Nik esperientziak erakutsia dakit hori.

Azken bolada honetan, askotan gogoratu dut irudia. Laster bi urte beteko dira *pandemiaren maratonia* hasi zenetik. Gehienok gogotsuegi hasi ginen, hura pare bat hilabeteko kontua zelakoan. Etengabeko goitibeheran ibili ondotik, seigarren olatuak itota utzi gaitu, etsiturik. Urte berrian, zurrumbilo berean. Eta batere ideiarik gabe ataka honetatik noiz, nola eta nora aterako garen. Helmuga ikustean, behin eta berriro atzeratzen dioten lasterkari akituaren antzera gabiltza: lur jota.

Baikorrenek diotenez, helmugaz beste aldean mundu hobeia izanen dugu. Nik ere hori sinetsi nahi nuke, aurrekariak esperantzarako zirrikitu handirik uzten ez badute ere. Gogoratu: 2008ko krisi-lapurretatik ahulak ahulago atera ziren; aberatsak, aberatsago; eta demokrazia kaltetua, ukitua eta ahuldua. Oraingoan ezetz esan digute, elkartasunean oina-

rrituriko soluzioa izanen dela. Hala bedi. “Portatu zaitetz fededun bezala eta fedea emanen zaizu” zioen Xabier Letek, erlijioaz ari zela. Ekonomia iragarpen baikor hori sinesteko ere, fedea dugu berme bakarra. Momentuz, aditu guztiak bat datoz: oraingo krisian ere gizartea arrakala handitu besterik ez da egin.

Tunela da krisiaren irudi erabiliena. Esan beharrik ez dago: tunel guztiek sARBIDE eta aterabide diferenteak dituzte. Begi bistakoa izanagatik ere, barneratu gabeko kontua dugu. 2020ko martxora bueltatzea dugu amets. Gure hiriko alkatea, esaterako, *betiko Sanferminak* bizitzearekin temoso dabil, bi kontzeptuak ezkontzea posible dela sinetsaraziz. Auto-saltzaileak ere matraka ematen ari dira, pandemia aitzineko salmenta maila berreskuratu behar dela azpimarratuz. Eta bidaiaria-agentziek ere Aste Santuan dute jarria esperantza, ordurako milaka hegazkin munduko bazter batetik bestera mugitzen hasiko direlakoan.

Javier Vitoria teologoak ederki azaldu zuen lehengo egunean Iruñean, Gogoa Foroak gonbidaturik eman zuen hitzaldian: “Normaltasuna zen arazoa. Jasaten ari garen krisiari garrantzirik kendu gabe, argi esan dezagun: ez dugu bidegabekeria oinarrituriko normaltasunera bueltatu nahi”. ●

Urte itsu berri on



ITZIAR BARDAJI
GOIKOETXEA
IRAKASLEA

Ez daukat telebistarik eta ikusten dudanean, zaratak, koloreek, hiperestimulazioak kolpatzen nau. Urte bukaerako kanpaiak ikusi nituen. Antena 3n, Pedrocheren soinekoa urte amaiera baino garrantzitsuagoa zen. Espektakuluaren gizartean aztarna uzteko asmoz edo, emakumeak burua arrasean moztu zuen. Hamabi kanpaietako bakoitzean pantailan esku batek Coca-cola botila bat hartzen zuen eta amaitzean iragarkien uholdea iritsi zen. Batzuetan iruditzen zait hobera goazela, belaunaldi berriak libreagoak direla. Perfume iragarkiak ikusten ditudan arte.

Egunkarietan urtearen laburpenak egiten dituzten albisteak irakurtzen ditut. Pobreagoak gara, ezberdintasun materiala zabalagoa. Iparralde globaleko gure herriari bere barruko hegoaldea handitzen zaio. Ongizate ereduaren fantasia telefonoz medikuarekin kontaktatzen saiatzen garenean ipintzen diguten musikarekin batera lurruntzen da.

Eta helarazten diguten mezua ez da aldatzen: klase ertaina da normaltasuna –pobrezia behin-behineko salbuespena akaso, gu ez garenona– eta kontsumoa zorionerako bide koloretu distiratsua. Urte itsu berri on. ●